

Giro ezin hobea
Kalebeherako
jaien hasieran

Gaur eta bihar ere ekitaldi
mordoa izango dituzte ▶ 3



Isastira martxa, AHTren lanen eraginak azaltzeko

ANOETA ▶ AHTren lanek sortutako zaborren ondorioz
bi zabortegi aurreikusita daude, handiena Isastikoa

KANPAINA ▶ Gizarte eragileak AHT proiektuaren
kontrako informazioa banatzen ari dira herritarrei ▶ 2



Panel informatiboaren bitartez lanen eragin berri eman zuten, atzo, Isastin eginiko mendi martxan. i. e.

TOLOSA ▶

«Lehena, oraina eta geroa» bildurik

Tolosaldeko 18 herritarren testigantzak eta 9.000 argazki
zahar daude ikusgai 'Esperientziak' proiektuaren baitan ▶ 4-5

LEITZA ▶

IKA euskaltegiak matrikulazio epea zabaldu du

Urriaren 6ra bitarte eman daiteke
izena eta 9an hasiko dituzte eskolak ▶ 7

JUAN PABLO ZUBELZU ▶
ENTRENATZAILEA



Juan Pablo Zubelzu. i. r.

«Ibarraren
helburua lehen
sei postuetan
geratzea da»

Gaur ekingo dio
areto futbol taldeak
denboraldi berriari,
Belabietan ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko pilotariak Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketan

Zazpi Iturri, Aurrera Saiaz eta
Erniope ariko dira, gaurtik aurrera ▶ 3



943 650 070
680 222 526
bridge2005@bridge2005.com

Pablo Gorosabel 2 - 1A
20400 TOLOSA - Gipuzkoa
www.bridge2005.com

ANOETA ▶ AHT



Isasti mendian panel informatiboa jarri zuten atzo bertara martxa egindako hainbat herritarrek. I. GARCIA

AHTk Isastin sortuko lukeen zabortegeiaren berri eman dute

Gizarte eragileak AHT proiektuaren kontrako informazio kanpaina burutzen ari dira; atzo, Isastira martxa egin zuten

IMANOL GARCIA

Anoetako gizarte eragileek AHT proiektuaren aurkako informazio kanpainarekin jarraitzen dute. Anoetan AHTren obrek sortuko luketen zaborrak gordetzeko bi zabortege egingo lirarteke. Horietatik handiena Isasti mendian aurreikusita dago, eta bertara egin zuten atzo mendi martxa, horren berri eman eta bertan zabortegeirik ez egiteko eskatzeko.

«Anoetan abiadura handiko 3,5 kilometro inguru trenbide eraikiko lirarteke. Tunelen zulketatik ateratako soberakinak botatzeko bi zabortege aurreikusitako dira, guztira 17 hektarea inguru lur harrapatuz. Bat, Isasti mendian 560.000 m³ (90 futbol zelai inguru metro bat

hondakinarekin) botatzeko eta bestea Barrundi, Katategi eta San Juan baserrien gaikaldean 100.000 m³ (16 futbol zelai) botatzeko», azaldu dute ekimenaren antolatzaileek.

Hamabost bat lagun elkartu ziren martxan. Plazatik abiatu eta AHTk Anoetan «kaltetuko litzukeen hainbat zonatik» igaro ziren Isasti mendira iritsi baino lehen. Bertan panel informatibo bat jarri zuten «AHTk herriari zer suposatuko liokeen erakusteko». Antolatzaileren esanetan, «AHTren proiektuak Anoetako ingurumenean nahiz herritarren ongizatean eragingo litzuke kalteak. Hortaz, AHTren proiektuari buruz, EAJ-EAren Udalarari informazioa jasotzeko eskubidea dugula aldarrikatzen dio-

gu. Gehiago diogu, Udala herritarrei informaziorik ez ematean, bere betebeharrak eta ardurari uko egiten ari dela salatzen dugun».

Antolatzaileek diotenez, «Agenda 21 egitasmoan, udal agintariei garapen jasangarriaz, herritarren iritziaz eta parte-hartzeaz ahoa betetzen zaiela ikusi ahal izan dugu. AHTren proiektuaren auzian Udalak duen jarrerak, ordea, Agenda 21 prozesuaren iruzurra agerian uzten du».

Gaur beste hainbat ekitaldi burutuko dituzte: 11:00etan, VI. Herriko Baserriaren eta Artisauren Azoka; 12:00etan, herri kirolak herritarren artean; 14:00etan, paellada herrikoia; eta 18:00etan, erromeria herriko trikitilariekin.

AGENDA 21 ▶

Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko ekitaldi ugari

Ernioidea Udaltalde 21eko hainbat herritan ekimenak antolatu dituzte aste honetarako

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu dute Ernioidea Udaltalde 21 osatzen duten hainbat herririk, datorren ostiralean, hilak 22, Autorik Gabeko Europako Eguna dela eta. Ekitaldien artean lagun ugari bilduko duena bihar egingo den Erniopeko Txirrindulari Bira izango da. Zizurkiletik abiatuko da, 10:15ean Joxe Arregi plazatik eta Villabona, Irura, Anoeta eta Tolosa zeharkatuko ditu. Iruran hainbat ekimenak antolatu dute.

Beste ekitaldi bat txirrindularien txekoia izango da, Oria Txirrindulari Eskolaren eskutik. Nahi dutenek beren bizikleta eman ahal izango dute, izan ditzakeen arazoak aurkitu eta konpontzeko. Zizurkilan gaur egingo dute, Joxe Arregi plazan, 11:00etatik 14:00etara. Villabonan ere gaur izango da, Berdura plazan, 11:30etik 14:00etara. Iruran, berriz, asteartean egingo dute, 18:00etatik aurrera.

Bide heziketa izango da antolatu duten beste ekitaldi bat. Anoetan, Asteasun, Iruran, Villabonan eta Zizurkilan emango dituzte azalpenak eskoletan, datorren asteazkenetik. Garraio publikoaren ordutegiak ere banatuko dituzte herritarren artean.

len emango dituzte azalpenak eskoletan, datorren asteazkenetik. Garraio publikoaren ordutegiak ere banatuko dituzte herritarren artean.

Autorik Gabeko Europako Egunerako, ostiralean, ekitaldiak antolatu dituzte ere. Anoetan, esaterako, 08:45ean plazan elkartuko dira elkarrekin Ikastolara joateko. Ondoren, Ikastolan bertan, 11:15etik 13:15era bizikletaren erabilerrari buruzko tailerra izango dute DBHko ikasleek. *Arrisku egoerak ekiditzeko aholku praktikoak* izenekoak, Joseba Agirrezabala txirrindulariak emango du. 15:30etik 17:00etara ginkana egingo dute HHko ikasleek. Zizurkilan, 12:00etan kontzentrazioa egingo dute Ogi-Zuriko biribigunean, herriak jasaten duen trafikoaz kezkatuko eta Foru Aldundiari irtenbideak eskatzeko. Aurretik, asteartean, 19:30ean, herriko mendi ibilaldien aurkezpena egingo dute Iriarte kultur etxean. Iruran, osteguneko plaza itxita izango dute —ostiralean herriko jaia hasiko dira— autontzat. Beste egunetan arratsaldean izango da itxita.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

V. Zaldi Lasterketa antolatu dute biharko

Zizurkil Goiko plazaren ondoan egingo dute lehia, 18:00etan, hamabost partaidek

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo V. Zaldi Lasterketa antolatu dute biharko. Aurreko urtean Gipuzkoako ligaxkaren parte izan zen, baina aurten ligaxka hori ez dute antolatu. Beraz, irabazleak lasterketa irabaztearen ohorea eta garaikurra jasoko du. Horrez gain, hiru lehenengoek dirua jasoko dute sari bezala eta beste guztiek dietak izango dituzte.

Hamabost partaide izango dira lehian, bihar, 18:00etatik aurrera. Gipuzkoa osotik etorritako zaldun eta zaldiak ariko dira nor baino nor, tartean

eskuladekoak ere. Zizurkil Goiko plazaren ondoan egingo dute lasterketa. Hiru txandatan lehiatuko dira, bakoitzeko bost partaiderekin. 1.500 metro egin behar dituzte, hau da, bost bira zirkuituari. Txanda bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira finalerako.

Orain arteko lasterketetan ondorengoak izan dira irabazleak: 2002 urtean, Iñaki Tolosa asteasuarrak, Iwox zaldiarekin; 2003an, Asier Mujika zizurkil-darra, Lur-ekin; 2004ean, Josu Kastañares elgoibartarra, Indar-ekin; eta iaz, Igor Kastañares, Hodei-ekin. Ea aurten nor gailentzen den.

HITZA banatzeko jendea behar da Tolosaldean
Tolosa, Ibarra, Villabona, Irura,
Anoeta, Zizurkil eta Leitzarako.

LEHEN BAIT LEHEN

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
- Asteazken sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara
943 30 35 33

ARAMBURU
Salgai (Irura). Guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko,
17. 140 m². Bistekin.
Salgai (Tolosa).
Pisua San Frantzisko 41.an.
Salgai (Tolosa).
Pisua Larramendi kalean.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizinarako
lokala.
Salgai (Villabona).
Lokala dendarako edo ofizinarako.
Salgai (Ibarra).
Garajeak, Euskal Herri kalean.
Alokatzeko.
Garajeak, Araba etorbidean, San
Frantzisko eta lurre auzoan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

PILOTA ▶

Probintziala abian da, etxeko pilotariekin

Eskualdeko Zazpi Iturri, Aurrera Saiaz eta Erniope ariko dira Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketa jokatzeko

NEREA URBIZU

Atzo hasi ziren Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketako partidak. Bertan, Zazpi Iturri, Aurrera Saiaz eta Erniope pilota eskolak ariko dira, besteak beste. Zazpi Iturrik atzo hasi zuten partidak, baina gaur ere partida gehiago ikusteko aukera izango da. 21:00etan lehenengo mailakoak izango dira Amezketan jokatzeko lehenak: Zazpi Iturri I Zazpi Iturri II. aren kontra. Baez anaia, Elurbe eta Garmendiaren aurka ariko dira.

Ondoren, kadeteen artekoa izango da: Sukiak Hernaniko Pilota eskolako pilotari baten

kontra jokatu du. Azken partida 2. mailako binakakoa izango da: Zelaia-Ugartemendia eta Antzuolako bikote bat ikusteko aukera izango da. Jubenil mailako partida ere izango da, eskuz banaka; Jon Otegi, hain zuzen. Hau Eibarren izango da.

Aurrera-Saiazek gaur ere izango ditu partidak: kadeteek banaka jokatu dute Azkoitia gaur, 10:30ean. Jubenilen artekoan Oiarpe eskolakoekin jokatu dute Narbarte-Telletxea bikoteak Beotibar pilotalekuan. Hau ere, 10:30ean. Jarraian senior mailako Galarraga izango da Behar Zana I eskolakoekin aurka. Hirugarrenen, Pikabea - Galarragaren

norgehiagoka izango da, Ramuntxo eskolakoekin aurka. Zarrutzen, Irazusta-Mugika izango dira, senior 3. mailakoetan, 17:00etan.

Bihar, senior 2. mailakoak Telleria-Odriozola Hernanikoen aurka izango dira Beotibarrren, 10:30ean. Ondoren Renobales eta Mugikaren artekoa seniorreko 1. mailan. Azkenik Oletxea-Orbegozok Bergarakoen kontra jokatu dute. Erniopekoek gaur jokatu dute, Astigaragan, 17:00etan.

Bihar Amezketan Joxean Tolosa Txapelketako finala izango da, hiru mailatan. Mikel Olazabal aresoarra izango da bertan.

ALEGIA ▶

Dantzari txikien ikastaroa, asteazkenetan

Alegiko Dantzari-txiki taldeak ikasturte berriari ekingo dio aurki. Euskal Dantza ikastaroak asteazkenetara izango dira —asteazken egun batez—. Urriari hasiko dira eta 6 urtetik gorako umeentzat izango da. Izena emateko epea hilaren 23ra artekoa da eta Kultur Etxean eman daiteke. Edozein zalantza izanez gero, Kultur Etxean eska daiteke informazioa.

HEZKUNTZA ▶

Bidegoianen eta Albizturren, ikastaroak

Bidegoianen eta Albizturren ikastaroak abian jarriko dituzte. Lehenengoan, eskulanean ikastaroa urriaren 3tik abendura arte izango da, balio anitzeko gelan. 26 euro balio du eta izena udaltxean eman behar da edo 943 68 11 28 zenbakian, hilaren 22a baino lehen. Helduen eskola, aldiz, hilaren 18an hasiko da: 14:30etik 16:30era, balio anitzeko gelan hau ere. Izena udaltxean eman behar da. Albizturren, gimnastika ikastaroa izango da, urriaren 3tik abendura bitarte, astearte eta ostegunetan. Udaltxean izango dira, 15:30etik 16:30era. 25 euro balio du. Udaltxean 943 65 44 26 zenbakian eman behar da izena.

VILLABONA ▶

Azkuek organo kontzertua emango du bihar

Jose Manuel Azkue organojole famatuak bihar Ramon Beristain apaiza eta organojolearen omenez kontzertu bat eskainiko du. Hau Villabonako elizan izango da. Meza barruan ere organojole bera izango da. Harekin batera, Eresargi Villabonako Abesbatza ariko da. 12:00etan ospatuko dute meza, eta jarraian izango da organo emanaldia.

ALEGIA ▶ JAIAK



Patata tortilla lehiaketako usain goxoa

N. Urbizu ▶ Hainbat taldek hartu zuten parte patata tortilla lehiaketan, atzo, Kalebeherako jaietan. Bitartean, haurrek buruhandiek gozatu zuten, beldurra eta emozioaren arteko nahaste kilikagarri hori sentitzen zutela agerian utziz. Gaurkoan, kirola izango da tarteka, eta baita gau osoan zehar txirrisklasa ere. Bertsolariak eta trikitilariak izango dira gaua animatzen arituko direnak. Hala ere, ez dute alegitarrek horren beharrik izango, parranda giro usaina ere, patata tortillarenarekin batera igarritzen baitzen. **N. URBIZU**

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak


**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

urteurrena ▶

I. urteurrena
Maritxu Ostolaza Ostolaza
(2005eko irailaren 12an hil zen)



Maite duguna ez da ahazten.

Igande honetan izango da bere aldeko meza, bihar, 12:30ean, Santa Klarako elizan

ZARAUZ, 2006ko irailaren 16a

urteurrena ▶

LEHENENGO URTEBETETZEA
Alfonsa Jauregi Maiza
ANDREA



2005eko irailaren 13an hil zen. 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

—Golan bego—

Gure artean / utzi zenuen argi biziak
bakarririk argitu lezake / zuk utzitako itzala
Emazte, ama, amona, senide, / izaba, lehengusu eta lagun
paregabea izan zarela / beti maitatuko zaitugu

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela BIHAR, goizeko HAMARRETAN, Bedaioko Jaioakundearen parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

BEDAIO, 2006ko irailaren 16an

KULTURA ▶

Oroimenean gordetakoak

70 urte baino gehiagoko Tolosaldeko 18 herritarren testigantzak eta 9.000 argazki bildu dituzte 'Esperientziak' proiektuan; ikusgai jarri dituzte egunotan

INIGO TERRADILLOS

Astelehenean aurkeztu zuten Tolosaldean ia berrira osoa igaro duten 70 urtez gorako 18 adinekoen testigantzak bilduz dituzten 'Esperientziak' proiektua. Tolosa 750 Fundazioak eta Artelekuk ekoiztu, eta Okupatzailek zuzenduriko lan honetarako, Margarita Iraustia, Sor Vicenta, Maria Dolores Leunda, Juan Ugarte, Juan Agirre, Jose Manuel Añaga, Tomas Uria, Bittori Zeberto, Jose Antonio Garate, Jose Luengo, M. Dolores Martinez de Lezea, Miren-txu Bioslegi eta Francisco Royo tolosarrak, Simona Aizpuro, Bixente Sazzer eta Xegun Iztueta berastegiarrak, Jose Mufagorri eldusindarra eta M. Luisa Agirre leaburuarra elkarrikidatatu dituzte, hala, orotzapean, diktatu eta oinomenen gureluzten dituzten gertakariak hitz egin dute 2 eta 5 ordu bitarteko elkarrikidatetan, eta hortien laburpenak ikusleentzako aukera izango da ondorengo egunean. Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artziboko Orokorrean. Hala, beren memoriak batera, zeharriaren memoria berreskuratu asmoa, pertsona horien euren argazkiak eskatu zituzten, eta bertan ere detali publikoak egin zuten argazki zaharrek biltzeko, guztira, 9.000 argazki digitalizatu ahal izan dituztelarik. Argazki hauek ere, Udal artxiboan daude herritarren eskura.



Triangulo. Triangulo plaza ageri da argazki hau, baina urte batzuk atzera eginda, beste iburra batekin.



Zumalakarregi. 1967. urtekoa da argazki hau, Zumalakarregi kalea da, eta bertan garaiko autobus bat ageri da.

Beti alai Garaiko garaiko janariak
gatortzea Arroiakietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremonteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ESNAOLA ETA URRUZOLA MUSIKA ESKOLA

SOLFEO-AKORDEOIA-PIANOA-TEKLADOA
GITARRA-TRIKITXA-PANDEROA eta ARMONIA
AKORDEOI, TRIKITI eta TEKLATU taldeak

Foruen elorb, 9 • Iartepilanta • TOLOSA • Tel.: 943 65 13 82

ERDIA INJAILARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ERAKUSKETA ▶

JENDAUURREAN
Aranburu jauregia.
Azaroaren 11 arte egongo da ikusgai proiektuaren baitan eginko elkarrikideten bideo erakusketa.

Kultur Etxea. IX. mendean Tolosan bizi izan diren pertsonen argazkiak egongo dira ikusgai, lehoetan, azaroaren 11ra arte.

Gipuzkoako Artzibo Orokorra. Hilaren 29ra arte, 12:00etan, Tolosaldeko 18 pertsonekin izandako elkarrikidatetarik aterako zatiak proiektatuko da.

Hilaren 30ean, beriz, Tolosaldeko herritarrek emandako 9.000 argazkielakotako baturak proiektatuko dituzte fabadan, 21:00etatik 01:00etara arte.

Dendak eta leku publikoak. Argazkielakotako baturak dabilozko argitaratu eta Tolosaldeko baturak publikoetan banatu dituzten herritarren.



Zerkausitik begira. Bere historian zehar hiru aldiz jasan ditu obrak Tolosaldeko Zerkausak, eta azken eraberritzea eta gero, asteazkenean inauguratu zuten. Irudian, Zerkausaren goko solairuan ikus ditzakegu herritarrek paisaiak goratzen.



Bulegariak. 50. hamarkadako bulegariak ageri dira, Doyharzabalek utzitako argazkia.



Ekondu aurreko agurra. 1946. urtean Cafe Orian egindako ekondu aurreko agurra. Doyharzabal Demenech familiak utzitako argazkia da.



Kandelagilea. Ia 30 urte egiten dugu atzera argazki honen bidez, 1979. urtekoa baita, eta bertan garaiko kandelagile bat, Ignazio Garmendia, lanean ikus dezakegu. Itaki Linazasorrena da argazkia.



Dendaria. Argazki honetan, 50. hamarkadan Tolosaldeko dendak eta dendariak nola ziren eta zenbat aldatu diren ikus dezakegu. Juana Baldarena da argazkia.



Garaiko ikasleak. Jesusen Bihotza ikastetxeko irudi bat da hau. Argazki honen bidez ere, urteko aurrera egin ahal aldatetarik izan direla ikus dezakegu.

hitza
argazki lehiaketa
bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI
► E-mail: tolosaldeko@tolosaldeko-hitza.info
► Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza, Arria elorb 5, atiza • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZaren egotzetera ekarri

OHARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info



Sari nagusia
2. saria
3. saria

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean
Plaza Etxeberri
jatezkoan afitaria

PARTE-HARTZALE ETA BOTOZEMALE
Guztiz erabiltzeko modukoa eta munduko garriko poltsa ezabatuko dira

IBARRA ▶

**Gimnastika
erritmiko
ikastaroa,
Belabietan**

Astehenean hasiko dituzte eskolak; izen-ematea hilaren amaierara arte zabalik

M. SOROA

Astehenean hasiko dituzte 2006-07 ikasturteko gimnastika erritmikoko eskolak. Hala ere, izen-emate epea zabalik dute oraindik, hilaren amaierara arte. Beraz, ikastaro honetan izena eman nahi duenak kiroldegira joan eta bertan eman beharko du izena.

Hona hemen talde eta ordutegiak: txikiak —lau eta zortzi urte bitarte— asteartean, 18:00etatik 19:00etara eta ostiraletan, 17:30etik 18:30era. Benjaminak —bederati eta hamar urte bitarte— asteazken eta ostiraletan, 17:30etik 19:00etara. Handiak —hamaiika urtetik aurrerakoak— astelehen eta asteazkenetan, 17:30etik 19:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.

IBARRA ▶

**Astearte eta
ostegunetan,
pilota klaseak
doan**

M. SOROA

Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak eta Uzturpe ikastolak pilota klaseak eskainiko dituzte, ikasturte berrian. Eskolak sei urtetik aurrera bitarteko haurrentzat izango dira honako egun eta orduetan: astearte eta asteazkenetan arratsaldeko bostetatik zazpitarera. Ikastaroa Belabietan kiroldegian egingo dute, doan. Izena emateko deitu 943 67 58 56 edo 625 70 78 29 telefono zenbakietara hiltzen 28a baino lehen.

IBARRA ▶ KIROLA

**Ibarra areto futbol
taldeak gaur ekingo
dio denboraldiari**

Errioxako Gracurris taldearen aurka jokatuko du taldeak Belabietan; Juan Pablo Zubelzu da entrenatzaile berria

MADDI SOROA

Gaur ekingo dio Ibarra areto futbol taldeak denboraldi berriari. Hala, ligako lehen partida jokatuko du Errioxako (Espainia) Gracurris taldearen aurka, Belabietan kiroldegian, 18:30ean.

Denboraldi berria dela eta, talde berritua dela esan daiteke, hainbat aldaketa egon baitira. Bajei dagokionez, Cesar Roca entrenatzaileak taldea utzi du eta Juan Pablo Zubelzu Txubel izango da haren ordez entrenatzaile lanetan ariko dena. Gogoratu, Ibarrako be-

heko mailetan aritu zela lehen. Jokalarien kasuan, Hautsi Izaguirre eta Mauro Ayerza izango dira aurtengoan taldean arituko ez direnak. Jokalari berririk izango da, ordea, taldean, Victor eta Andoaingo Imanol eta nazio mailako Loitzun Sanz eta Aritz Otaegi gazteak. Bestalde, gogoratu plantillak bere horretan jarraituko duela: Igor Zabalo eta Mikel Sanz atezain lanetan, Victor, Sinoe eta Unai itxieran, Lander, Karrera, Ustaritz, Aritz, Xabi eta Imanol hegalean eta Prados eta Loitzun pibot gisa.

Ibarra areto futbol taldeak

zaletuenganako deia egin nahi izan du, hasi berri duten denboraldi honetan zaletuek ahal legin guztiak egin ditzaten taldea lagundu eta iazko denboraldian lortu zen moduan, kategoriako afiziorik onena izaten jarraitzeko.

Aurtengo denboraldiko abonuei dagokionez, gaur burutu den partidaren emango da horren berri. Bestalde, arautegi berria aplikatuko da eta aldatuta ugari izango dira. Horregatik, bai taldeko jokalariek baita afizioak ere, ahaleginak egin beharko dituzte arautegi berria ohitzeko.

JUAN PABLO ZUBELZU ▶ ENTRENATZAILEA

**«Lehenengo sei postuetan geratzea
litzateke helburu nagusia»**

Juan Pablo Zubelzu Ibarra areto futbol taldeko aurpegi berria ez izan arren, bera dugu aurtengo denboraldiko entrenatzaile berria. Hitzarekin solasean aritu da, aurtengo denboraldiari buruz.

Ibarra areto futbol taldeak entrenatzaile berri du.

Gustura nago. Lehendik ere aritu nintzen Cesarren ordez pare bat aldiz eta ez da gauza berria. Hala ere, animatuta nago; orain, ikusi egin behar nola hasten dugun denboraldia.

Zein helburu finkatu dituzue denboraldi berrirako?

Helbururik nagusia sailkapena da, iaz hirugarren egin genuen eta aurtun errepikatu egin nahiko genuke posizioa, lehenengo sei postuetan bai behintzat.

Mailaz igotzea ametsa litzateke?



INIGO TERRADILLOS

Beno, egia esan, gainontzeko taldeak asko hobetu direla uste dut, fitxaje berriak egon dira eta zilarrezko mailatik jaitsi den talderik ere badago. Hala ere, inoiz ezin da jakin. Kirol hau horrelakoa da, inoiz ez dakizu zer gertatuko den.

Jende berria duzue taldean. Zer moduz ikusten duzue aurtengo taldea?

Iazko maila mantentzeko prest ikusten dut taldea, animatuta eta gogotsu hasi baitute denboraldia.

Zer eskatuko zenioke zaletuei?

Egia esan, oso pozik gaude dugun zaletuekin; beraz, orain arte bezala jarraitzea nahiko nuke. ◀

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Tximenetako zatituta dagoen pago enbor lehorra salgai. 646 53 71 15.

Autoa. Volkswagen Passat-a salgai. 2003. urtekoa. Interesatuak deitu 609 47 89 88 telefono zenbakira
Txakurkumeak. Setter Ingles (leveling) arrazako txakurkumeak. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. 647 14 40 70.

Argazki kamera. Nikon D50 reflex digitala, 18-50 eta 50-200 objektiboak, 1 gbeko txartela eta poltsarekin. Egoera onean. Deitu 600 02 60 85 telefono zenbakira.

Autoa. Salgai Mercedes Vitoa, 110D. Mistoa, 1997ko. Interesatuak deitu 646 13 05 47ra.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 ordu lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Ile-apaintzailea. Ile-apaintzailea behar da Tolosan, esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gartzite asegurantza. 625 70 50 59.

Zaintzailea. Neska euskaldun bat behar dut haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak 638 18 52 05

ERROMERIA LEGAZPINI

Irailaren 17an, igandea, Lakiolamendin, 12:30etik aurrera
-Baso-lanen erakusketa, apustua, bertsojariak, jokoa eta erromeria bikaina Elustondo anai-arebekin!
-Autobusa, bazkaria eta taberna.
-Euskarazko webgune berri baten alde.
Anima zaitetz!

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritza, Udalekueetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

ARESO ▶

Uso-postuen
enkantea,
hurrengo
astean

Aresoko Udalak 27 uso-posturen enkantea «ahots-goraz» eginen du

ERREDAKZIOA

Aresoko Udalak hurrengo astean eginen du ehizarako uso-postuen enkante publikoa: 27 postu aterako ditu enkantera, «ahots-goraz» eginen dutena.

Bertan parte hartzeko, herriko udaletxeko batzar aretora joatea besterik ez da egin behar, eta bertan egin eskaintzak. Bertatik zehaztu dutenez, enkantea irteera prezioa 90 eurokoa izanen du postu bakoitzak, eta «tanto» bakoitzak, alegia, eskaintza bakoitzak 10 euroan igoko du balioa.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ EUSKARA



Kontxi Zozaiarekin batera —irudian—, gutxienez beste bi irakasle ari dira lanean: Onintza Bengoetxea eta Judith Mariezkurrena. JAIONE ASTIBIA

Matrikulazio
epea zabalik
euskaltegian

Hurrengo hilaren 6ra arte egin daiteke matrikula Leitzako IKA euskaltegian

JAIONE ASTIBIA

Hilaren aurrenetik hasi eta heldu den urriaren 6ra arte, Leitzako IKA euskaltegian ikasurte berrirako matrikulazio kanpainan murgilduta daude. Bertara joan, izena eman eta harremanetarako telefono zenbakia uztea besterik ez da egin behar. Noski, euskara ikasteko edo hobetzeko gogoia eta lana norberak jarri behar du; baina gainerako guztia euskaltegian lanean ariko diren irakasleek jarriko dute.

Leitzako euskaltegiak hainbat udal herritan egiten du lan: Leitza, Lekunberrin, Basaburua-Imotzen (Aizarotzen dute egoitza), Araitz-Betelun eta Goizuetan. Herri hauetara joaten dira eskolak ematera, «gu beti saiatu gara tokian toki taldeak sortzen, baina azken urteotan joera berria bada ikaslearen artean herri batetik bestera mugitzekoa, alegia, taldea sortu den lekura joateko errepato gutxiago dute orain», adierazi dute euskaltegiko arduradunek.

Euskalduntzeko urrats guztiak egiteko aukera eskaini dute aurtun ere, eta ikastaro bereziak ere bai, azken hauek 20 orduko iraupenekoak, «batez ere euskararen zuzentasu-

IKA EUSKALTEGIA ▶

Matrikulazioa

Epea. Urriaren 6ra arte.
Lekua. Leitzako IKA euskaltegia edo 948 610 776 telefono zenbakira deituz.

Ikastaroak

Hasiera. Urriaren 9a.
Euskalduntzekoak. Urrats guztiak.
Bereziak. 2006/07 ikasturtea: EGA titulurako prestaketa, Euskaltzaindiaren araugintza, gurasoentzako ikastaroak, akatsak zuzentzeko ikastaroa.
Non. Leitza, Lekunberrin, Araitz-Betelu, Basaburua-Imotz, Goizuetan.

nari begira bideratutakoak», bai arauari dagokienez, bai ohiokotik diren akatsak dagokienez. «Oso ikastaro politak dira, atseginak, ikasteko modu oso eramangarria eta erraza dutenak; ikasle, irakasle, orohar euskara landu samarra duenarentzat prestatutakoak».

Taldeak sortu ahala, eurek erabakiko dituzte egunak eta ordutegiak. Ikasleek, behin ikastaroa hasitakoan ordaindu beharko dituzte matrikula tasak.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Perkusio tailerra prest
Ateka Beltz Gaztetxean

Hiru eguneko saioa eginda, gaur zortzizako, hilaren 23a, batukada eguna antolatu dute

J. ASTIBIA

Perkusio ikastaroa eginen dute Ateka Beltzen, hilaren 20ean hasita, «nahi duen guztiarentzat irekita, adin mugarik gabe eta kopuru mugarik gabe».

Ateka Beltz Gaztetxeak eta Gizarte Zerbitzuak elkarlanean antolatu dute tailer hau. «Hainbat saiakera egin ditugu, eta oraingoan jendea ari da izena ematen, eta oraingoa aterako da», ziurtatu dute. Antolatzaileen ustez, «ikusmina sortu duela dirudi».

Ikastaroak 3 saio izanen ditu, hil honen 20an, 21ean eta 22an eginen dira, Ateka Beltz Gaztetxean bertan, 19:00etatik 21:00etara, eta Oskar Estanga ariko da irakasle lanean, musikan aditua eta lanean ari dena bera. Antolatzaileek zehaztu dutenez, ikastaroan behar den materiala beraien jarriko dute, baina «inork danborren bat edo izan ez gero, ekartzea komeni» da, lanak errazte aldera.

Hiru lansaio horietan oinarritzko pauta batzuk, erritmo batzuk, ikasiko dituzte. Eta gero, «hoberena ikasitakoari bidea ematea» omenenez, batukada festa egiteko asmoa dute larunbatean, hilaren 23an, eta harako errepertorio tiiki bat ere prestatuko dute.

Horrela, larunbatean herrian barrera ibiliko dira ikastaroan parte hartu eta hala nahi dutenak. «Ikasitakoa erakutsiz, herria girotzeko aitzakia bat da».

Tailerrean «edozeinek» eman dezake izena, «perkusioa gogoko duen edonork», hain zuzen ere. Izen-ematea Gaztetxean bertan edo Torrean egin daiteke, horretarako azken eguna bihar izango delarik.

Perkusio ikastaro honekin hasi badira, udazkenerako «egitarau zabal» prestatzeko antolaketa lanean ari direla jakinarazi dute. Hainbat egitasmo dituzte eskuartearen. «Antzerki saio bereziak», tar-teko direla.

ARESO ▶ KIROLAK

Onsalo eta Olazabal DV
Txapelketan ariko dira

Aresoko bi pilotari gazteek, Irurita eta Iza izanen dituzte atzelari, hurrenez hurren

ERREDAKZIOA

Unai Onsalo eta Mikel Olazabalek, biak Aresoko pilotariak eta biak aurrelariak, DV Pilota Txapelketan jokatu dute. Txapelketa hau, hilaren 23an hasiko da Getarian, eta abenduaren 23ra arte luzatuko da. Tolosako Beotibarren jokatu dute finalerakin bukatuz.

Olazabal iaz txapelketa ordea gelditu zen, Jauregirekin; oraingoan, Iza zornotzara du bikote (atzoko Leitzako txapelketako partidaren aurkari izan zuena) eta txapelketako lau serietatik bateko buru direnez, ez dute final-laurdenak arte jokatu beharrik izanen. Aitatu, aurtengo edizio honean txapelketa izateko fabrikatzen artean daudela.

Onsalok, berriz, Irurita bur-latarra lagun duela jokatu du; hasierako kanporaketetik aurrera ariko dira hauek eta «lanak emanen dituzten» bikoteen artean josten dute hau ere.

▶ **TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Eztabaida. Bullyng-a: zergatik ematen da? Azken urtean ikastetxetan gertatu diren kasu batzuk ezagutzera eman dira: ikasle batzuk tratu berrak eta irainak jasotzen dituzte. Gure gurasoek jasaten zizutenen antzekoak ote? Irtenbiderik ba al du?



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Kalebeherako jaiak: 12:30ean, ume eta helduen krosa; 16:00etan, ume jolasak eta txokolatada eta Pala Txapelketa; 21:00etan zahagi ardoa; 23:00etan, Ibai Esoain, Gorka Tolosa eta Xabier Sukia bertsolariak; ondoren, trikitilariak; 02:00etan, zaku karrera; gau osoan zehar, txirrisklas.

Zizurkil. Mugikortasun Astearen baitan, bizikleten txekoak doan, 11:00etatik 14:00etara, Joxe Arregi plazan.

Tolosa. 750. urteurrenaren harira antolatutako egitaraua: egun osoan zehar, Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketako finala; honen baitan, Lopez Mendizabal pasealekuan Kapoera erakustaldia, 20:00etan; 20:45ean, Ortophonk taldearen kontzertua; egun osoan zehar, Erraldoiak eta Buruhandiak: 09:30ean, Alde Zaharreko kaleetan dultzaineroen diana; 11:30ean, Alde Zaharreko kaleetan, konpartsen kalejira; 14:30ean, konpartsen bazkaria Abastos plazan; 18:00etan, konpartsen irteera Santa Maria plazatik eta desfilea Solana, Korreo eta Leitza kaleetatik eta Plaza Berritik; 18:30ean, konpartsen konzentrazioa Plaza Berrian; 20:00etan konpartsen bilketa Triangulo plazan; 17:00etan, Oskorri eta Kukubiltxo Leidorren; 21:30ean su artifizialak; 22:30ean *Tolosa Kantuan* kontzertua Euskal Herria plazan; ondoren, gau animazioa Tolosako kaleetan.

Tolosaldea. Bihar, Erniopeko Txirrin dularitza Bira, 10:15ean, Joxe Arregi plazatik abiatuta.


ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

Alegia. Pabxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte. Bertan lortutako dirua, Kubara bideratuko dute.

Urak dakarrena, urak daroa

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Oraingoan uraren inguruko bi argazki heldu zaizkigu gure lehiaketara; Gregorio Mancisidor eta Juan Etxabe dira egileak



'MEROA MEDASEN' ▶

Gregorio Mancisidor (Tolosa).

Urpean ibili da Gregorio Mancisidor tolosarra uda honetan. «Medas uhartean, urpekaritza egiten ari ginela mero ikusgarri hau topatu genuen. Uharte hauetan ur azpian izugarriko bizitza dago, baina meroa da errega. Benetan pena merezi izan zuen», dio Gregoriok.

'ALHAMBRA' ▶

Juan Etxabe (Tolosa).

Granadako (Espainia) Alhambra harritu egin zuen Juan Etxabe tolosarra, udan bertan egon zenean. Hauxe azaldu digu berak: «Granadako Alhambra izan gara uda honetan; oso polita da, zoragarria benetan. Berdeguneak ikaragarriak dira, baita dituen lorategiak ere. Egia esan, barnealde guztia ikusgarria da baina lehiaketarako argazki hau aukeratu genuen, zati hau oso berezia baita».



GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46.
943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

Goiko irratia (107.0 FM)
13:00. *Kornera* magazina.
Posta elektronikoa: kornera@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Ainhoa eta Mikel. Zorionak zuen ezkontza egunean. Ondo pasa lagunen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea



ZORIONAK LIERNI ETA HARITZ

Lurdes, Josebo, Oihana eta Haritzen partetik. Gaurko zun ezkontzan earki aski ibilliko ga: parranda earra in beau!!